

Iker eta Noaga: bi bizimodu ezberdin

Gai honekin zerikusia duten arloak

- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA.
- HIZKUNTZA

HELBURUAK

- Kultura bakoitzaren bizimoduak errespetatzea eta balioestea, bereizkeria mota oro arbuiatuz.
- Lehen eta Hirugarren Munduko eguneroko bizimoduen artean dauden ezberdintasunak ohartzea.


MATERIALA

- ♦ Intermonen bideoa: **Noaga, la niña de Burkinafaso** (ez da ezinbestekoa jarduerara egin ahal izateko).


Garapena

Aldi berean aurkezten dira Ikerrek eta Noagak egun batean egiten dituzten gauzak. Jarduera hau 45na minutuko bi ekitalditan egitea aholkatzen dugu; lehenengoan, bi istorioak irakurri, iruzkindu eta erkatu egingo dira. Bideoa ere ikus dezakegu, fikzioa barik, Noagaren benetako bizimodua dela uler dezaten.

Bigarren ekitaldian, are lan sistematikoagoa egingo dugu. Lauzpabost laguneko taldeak antolatuta, Ikerren eta Noagaren familien bizimoduen arteko ezberdintasunak zehaztuko ditugu. Famili motari, etxeei, dibertsioei, desplazamenduei eta antzeko alderdiei begiratzeko esan ahal diegu. Halaber, interesgarria litzateke bi kulturen gauza positiboak eta negatiboak aurkitzeko esatea, bai eta, alderdi materialei dagokienez, zergatik dagoen horrelako alde handia planteatzea ere.



Hortxe daukazue Iker, egunari ekiteko prest.



Kaixo, Noaga naiz, 12 urte ditut eta Burkinafason bizi naiz. Gaur, ama eta biok goizeko lau eta erdietan altxatu gara.


Egun berezia da: lehenengoz joango naiz amarekin azokara. Oilasko batzuk hazi ditugu eta saltzera joango gara.



Gosari gozo honek indarra emango digu egunaren zati luze baterako.




Aitak lantegi batean egiten du lan, eta amak, laborategi batean. Gu ikastetxera joaten gara; ordu erdia ematen dugu haraino iristeko.




Nahiko astuna izaten da egunero bide hori egin behar izatea, baina are nekosoagoa da aitarentzat, berak hiria-
ren inguraldean dagoen industrialderaino joan behar du eta. Horregatik, guztiok etxetik kanpo bazkaltzen dugu. Zorionez, asteburuetan denbora luzeagoa izaten dugu elkarrekin egon eta gauzak egiteko.




Gosalorduan, etxeko guztiok elkartu gara: aita, ama, osaba, zazpi neba-ahizpak eta neu. Artatxikia da gure elikagairik garrantzitsuen. Artatxikia da bihia da; jan ahal izateko, xigortu, azala kendu eta eho egin behar dugu (zeregin hori —oso garrantzitsua— emakumeok egiten dugu), gero oratu eta egosi egin behar da, eta saltsa batekin jaten dugu. Amak baratze txiki batean hazten dituen barazki batzuk ere jaten ditugu, eta oilaskoak dauzkagun arren, jai handietan baino ez ohi ditugu jaten, nahiago izaten baitugu azokara eraman eta behar ditugun gauzekin trukatu.




Ama eta biok azokara goazen bitartean, familiako gainerako kideak ez dira nagitsu egoten: aita eta osaba sorora joan dira lanera. Herriko bizilagun guztiok harresi txikiak eraikitzen ari gara, euriteek gure lurzorua eraman eta luraren emankortasuna gal dadin eragozteko.




Bi neba nagusiak ur bila joan dira etxetik hainbat kilometrotara dagoen urtegi batera; ez dugu beste irtenbiderik, herrian ez daukagu—eta putzurik. Nire ahizpa Justine txikiak zaintzen geratu da.




Ufi, ez naiz ezertaz enteratu.



Asteburuan egingo dudana nerabilen buruan: kirol zapatila batzuk erosiko ditut, pelikula bat ikustera joango naiz... Beno, ikasi eta etxeko lanak ere egin beharko ditut.



Azkenik etxean! Arratsaldeko ordu honetan ahituta egoten gara: eskola, kontserbatorioa, futbito, saskibaloia... Gelditu barik ibiltzen gara! Orain, afaria prestatzen lagunduko dugu pixka batean, telebista ikusiko dugu, afaldu, apur batean ikasi eta ohera joango gara. Bihar ere eguna argituko du.



Azokan, herri askotako jendea ikusi dugu; amak jende asko ezagutzen du. Berak oilaskoak saldu bitartean, nik merkatuan zehar ibiltzeko aprobetxatu dut. Amak prezio onean saldu ditu oilaskoak, eta pozik dago; gozoki bat erosi dit postu batean... Bai gozoa!, neba-ahizpek jakingo balute...



Ama eta biok azokatik etxerako bidean goazela, zer egin nahi nukeen pentsatzen ari naiz: ikasi, egunero oilaskoa eta fruta jan, herrian putzu bat eduki... eta, arratsalde, nire jarduera gogokoena: beste emakume eta neskatoeekin kantatzea eta dantzari egitea.



Herrira heldu garenerako, gaua zen jadanik. Amak eta biok erosi duguna erakutsi eta ikusi dugun guztia kontatu egin diegu. Guztiok elkarrekin afaldu ostean, txiki-nak zaintzen lagundu diot ahizpári. Haserre samar dago, bera ezin izan da-eta azokara joan; pasatuko zaio. Lotarako ordua da. Nekatuta nago, baina poz-pez; oso egun atsegina izan da gaurkoa.